

IES LEIZARAN BHI

HEZKUNTZA PROIEKTUA

SARRERA

Hezkuntza proiektu hau orientazio eta pedagogia kudeaketaren erreferentzia markoa da. Bertan gure ikastetxearen errealitatean oinarriturik gure xedeak, lortu nahi ditugun helburuak eta gure eguneroko zereginen zentzua zehaztuko dira.

Ekimen hauek gidatuko dituen dokumentu honek irekia eta laburra izateko asmoa du.

Bertan adierazitakoak ikastetxeko gainerako dokumentuetarako, hala nola Proiektu Kurrikularra, AJA, Urteko Plana, edo programazioak, erreferentzia eta oinarri izango dira.

1. IKASTETXEAREN KONTESTUAREN AZTERKETA

LEIZARAN BHIa ikastetxe publikoa da, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren mende dagoena. Finantziario publikoa du eta doakotasuna, beraz, oinarritzko printzipiotzat jotzen du.

Ikastetxeak IES LEIZARAN BHI du izena eta Andoaingo (Gipuzkoa) Plazaola, 23an dago kokatuta. Aipatu herria Donostialdeko eskualdean txertatzen dela eta 14.630 biztanle inguru dituela. Dena den, Tolosaldea eta Buruntzaldea eskualdeen muga egoteak itxura berezia ematen dio, hau da, zerbitzu batzuetarako aipatu eskualde horietako batera jo behar dugu eta besteetarako, berriz, beste baten mende gaude. Ez ditugu, beraz, gure zerbitzuak zentralizatuta ezta mendekotasun bakarra ere eta horrek, zerbitzuei dagokienez, ahulezia dakarkio.

Populazio gehiena udalerrian bertan jaioa da baina, urtetik urtera atzerritik etorritako biztanleria gora egiten ari da. Hori dela eta azken urteetan gure ikasleen jatorriak ugartu egin dira. Honek guztiak kulturartekotasuna bultzatzera eraman gaitu kultura ezberdinetako gizarte ireki, aberats eta baterakoi bat sortzeko asmoz.

Egoera ekonomikoari dagokionez, batz besteko errenta pertsonala Gipuzkoaren eta Donostialdekoaren batz bestekoarenetik behera dago. Horrela gure ikastetxeari dagokion ISEK-a, hau da indize sozio-ekonomiko eta kulturala, hein baxuan kokatzen da.

Zerbitzuetakoa da sektore ekonomiko nagusia Andoainen, ondoren industria (enpresa ertainen nagusitasunarekin) eta eraikuntza.

1.1. IKASTETXEAREN EZAUGARRIAK:

Ikastetxea 1979an sortutakoa da, Lehen Hezkuntzako Ondarreta Ikastetxe Publiko bitan banatzearen ondorioz. Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko mailak 1984-85 ikasturtean ezarri ziren. Bigarren Hezkuntzan D ereduak daukagu. Hala eta guztiz ere, azken urteotan atzerrikariek etorritako ikasle kopuru garrantzitsua jasotzen ari gara eta honek hizkuntza-errefortzu neurriak hartzea eskatzen digu.

Batxilergoko bi modalitate eskaintzen ditu ikastetxeak A eta D ereduetan: Batxilergo Humanistikoa eta Zientifiko-teknologikoa. Berriagoa da Goi Mailako Heziketa Zikloaren (Gizartratzea) eskaintza 2001-2002 ikasturtean ezarri baitzen. Eskeintza osoa (goizez) A eta D ereduetan eskaintzen da eta Eskaintza partziala (arratsaldean) A ereduaren bakarrik.

Tutore-ikasle ratioa 15-20koa da maila ezberdinetan.

1.2. INSTALAZIO ETA ZERBITZUAK:

Klaseetarako ikastalde bakoitzak erabiltzen dituen 16 ikasgela arruntaz gainera, BEC (ACI) ikasleen arretarako bi gela daude eta bost bikoizketa gela.

Zazpi mintegi daude: Euskara eta Gaztelera, Filosofia eta Historia, Atzerriko Hizkuntza, Matematika, Fisika-Kimika, Biologia-Geologia (hiru hauek elkarrekin), Gizartratzea, Teknologia eta IKT gela.

Gainera ikastetxeak beste gela berezi eta osagarriak ditu:

Laborategiak: Beheko solairuan Kimikako Laborategia dago. Lehen solairuan Natur Zientzietako Laborategia daukagu. Bigarren solairuan, beste Laborategi zaharra dago baliabide ezberdinez hornitua dagoena eta Plastika gela bezala erabiltzen dena.

Beste gelak: Beheko solairuan Musika, Marrazketa eta Teknologia gelak daude. Halaber, 60 pertsonentzako edukiera duen Areto Nagusia, bileretarako, hitzaldietarako eta ikus-entzunezko proiektuetarako erabiltzen dena. Beheko solairuan ere, atezaintza, gurasoen arretarako bi gela, sukalde txiki bat, administrazioa eta zuzendaritza eta hezkuntza-orientabide zerbitzuak daude.

Liburutegia: Bigarren solairuan.

Irakasle gela: Lehen solairuan.

Kiroleterako eremua: Eraikuntza nagusiaren goialdean, kirol eremua dago. Bertan jolasetarako jolastoki zabala dago eta ondoan, kirol-instalazio itxia, aldagelak eta dutoak dituen. Hezkuntza fisikoko mintegia bertan dago.

Eraikuntza nagusiaren ekialdean, patio estali bat dago euri egunetan erabiltzen dena.

1.3. HIZKUNTZA ERREALITATEA:

2012-2013 ikasturtea izan zen Hizkuntza Normalkuntza Proiektua martxan jarri genuen lehen kurtsoa Leizaran BHIIn. Ikastetxe honek dituen ezaugarriak (euskararen presentzia ikastetxean oso urria zen, ikasle etorkinen kopurua handia, % 39a) kontuan hartuta, behar-beharrezkoa iruditu zitzaigun horrelako proiektu bat abiaraztea, hizkuntzaren normalizazioan aurrerapausoak eman eta euskararen erabilera hezkuntza komunitate osoan sustatzeko asmoz.

Aurten Ulibarri proiektuan gaudela 4. urtea da eta bide berberetik jarraitzen saiatu gara: ikasleen taldean eragitea euskara bihur dadin, gero eta gehiago, beraien arteko komunikazio-hizkuntza. Horretarako ikasturtean zehar ekintza ugari egiten dira talde ezberdinekin. Irakasleei dagokienez gehienek euskaraz badakiten arren, gaztelaniaz hitz egiteko joera nabarmena dute eta horrexek izan beharko luke gure hurrengo erronka.

Bestaldetik ikastetxeak, ahalegin handiak egin ditu azken urteotan, bai barne eta bai kanpoko funtzionamenduan, euskaraz bizi ahal izateko: bilerak euskara hutsean egiten dira, kanpoko erakunde zein ikastetxeekin egiten diren harremanetan lehen hitza euskaraz ematen da, irakasleei igortzen zaizkien oharrak euskaraz izaten dira, ikastetxeko dokumentazioa (IUP-PAC, memoria, programazioak etab) euskaraz egiten da...

Hala ere bertako hizkuntzaren erabilera nahiz ezagutze-kalitatea sustatzetik abiatuta, beste hizkuntzen (ingelera, frantsesa) irakaskuntza integratuan sakontzen duen hezkuntza eredua bultzatu nahi dugu.

2. IKASTETXEAREN IZAERA

Ikastetxeak sinesmen eta iritzi guztiak begirunez hartzen ditu. Halaber, ez da ezein mugimendu edo politika jakinekin identifikatzen. Beraz, ikastetxe irekia da, plurala, demokratikoa, non ikasleak, hauen gurasoak, irakasleak eta gizartea bera ere kabitu eta guztien arteko harremanak lankidetzaz, begirunez eta tolerantziaz ematen diren.

ZEIN HEZKUNTZA JARDUERA BULTZA NAHI DUGU?

2.1. *Hezkuntza ibilbidearen xedeak:*

LEIZARAN BHIaren Hezkuntza Proiektua hezkuntza jarduera osoan funtsezkoak diren printzipio eta balio demokratikoetan oinarritzen da, ondoko helburuok lortu ahal izateko:

- Nortasunaren garapen osoa, oinarrizko eskubide eta askatasunen begirunearen sustapenaren bitartez.
- Gizartean esku hartzeko ikasleen prestakuntza, bakea, lankidetzaz eta elkartasuna balioak sustatuz.
- Lan-autonomiarako trebetasunak garatzea.

2.2. *Printzipioak, balioak eta nortasun ezaugarriak:*

- **Plurala, inklusiboa. Ekitatiboa:** Guztiontzat lekua dagoen ikastetxe bat eraiki nahi dugu, irekia, bilgune dena; non ikasle guztiek ikasi eta arrakasta, nahiz eta era diferentetan, izan dezakete; aukera-berdintasunen bermatzaile dena eta ikasle bakoitzaren ahalmenak eta gaitasunak ahal beste garatzen duena.
- **Euskalduna. Eleanitza:** Bertako hizkuntzaren erabilera nahiz ezagutze-kalitatea sustatuzetik abiatuta, beste hizkuntzen (ingelera, frantsesa) irakaskuntza integratuan sakontzen duena.
- **Kulturartekotasuna:** Beste kulturak ezagutu, errespetatu eta bizikide izateko estrategiak ahalbideratzen duena.
- **Berdintasuna, errespetua eta justizia sustatzen duena. Tolerantzia.** Gainerako askatasuna, pentsamolde, jokabide edo iritziak errespetatzen dituena. **Bizikidetzaz** oinarri harturik (giza eskubideak eta bizikidetzaz demokratikoaren printzipioak erreferentzia izanik) gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duena, **hezkidea**.
- **Ekologikoa. Eredu jasangarria xede duena.** Natura zaintzen eta errespetatzen irakasten duena. Ohitura osasungarriak eta aisialdi aktiboaren defendatzaile dena.

- **Parte-hartzailea:** Familia, ikasle eta irakasleen parte hartze eta elkar lanean oinarritzen dena.
- **Ikaslearen garapen integrala, autonomia eta ekimena.** Gure ikasleen osoko garapena bilatzen duena, hau da adimen, gizarte, emozio, moral eta gorputzaren arlokoa. Ikasleen autonomia eta bakarkako nahiz taldeko ekimena eta lana bultzatzen duena.
- **Herritar izateko eta gizarteratze aktiborako prestatu:** Herritar kritiko eta arduratsuak, gizartean aktiboki integratu eta parte hartuko dutenak hezten saiatuko dena.
- **Kalitatezkoa:** Ikaskuntzarako egoera aberatsak eta dinamikoak eskaintzen dituena, berrikuntza proiektuak bultzatuz eta gauzatuz.
- **Irakasleen profesionaltasuna:** Irakasleen profesionaltasuna, etengabeko prestakuntza eta koordinatutako talde lanean oinarrituko dena. Irakasleek bere jarduera profesionalarekiko jarduera kritikoa duena.
- **Ikastetxea bere inguruan errotua. Gizartearen zerbitzura:** Gizartearen errealitatea eta bere beharrak kontuan hartzen dituena. Beste ikastetxe, erakunde eta elkarteekin lankidetzan aritzen dena. Giza baliabideak nahiz ekonomikoak era arduratsuan kudeatzen dituena.

3.1. HELBURUAK

3.1.1 GELAKO JARDUEREI LOTURIKO HELBURUAK

Helburuaren formulazioa:

Ezaguereen eta estrategien bidez, gure ikasleek zientziaren eta kulturaren sarbiderako beharrezkoak diren gaitasunak lortu, eta bizitza ereduak aukeratzeko eta iritzi pertsonalak sortzeko berariazko irizpideak eskura ditzaten.

Dagokien printzipio, balore eta nortasun -ezaugarriak:

Ikaslearen garapen integrala. Gaitasun kritikoa. Autonomia, ekimena.

Helburuaren formulazioa:

Ikasleen artean lanerako eta ikasteko ohiturak sustatu.

Dagokien printzipio, balore eta nortasun -ezaugarriak:

Ikaslearen garapen integrala. Banakako nahiz taldeko ekimena eta lana bultzatu.

Helburuaren formulazioa:

Gure ikasleen artean komunikazio bide egokiak lortu: elkartasuna, tolerantzia eta aniztasunari buruzko begirunea sustatu, erlijioagatiko, sexuagatiko edota jatorriagatiko ezein diskriminazio mota baztertuz.

Dagokien printzipio, balore eta nortasun -ezaugarriak:

Begirunea, bizikidetzatza, hezkidetzatza. Kulturartekotasuna. Plurala, inklusiboa.

Helburuaren formulazioa:

Ikasleen egoera pertsonala ezagutzeko, eta baita gizarte eta familia egoerari dagokion ere, tutoretzatza jardueratza indartu bai beraieit bai gurasoeit arretatza eta orientatbide egokiatza emanetz.

Dagokien printzipio, balore eta nortasun -ezaugarriak:

Berdintasunatza eta inklusibitateatza. Ingurunean errotuatza eta gizartearen zerbitzuratza. Kalitatezko irakaskuntzatza. Herritar izateko eta gizarteratze aktiborako prestatu.

3.1.2. IRAKASLE ETA IKASLEEI DAGOZKIEN HELBURUAK

Helburuaren formulazioa:

Etengabeko prestakuntzaren bitartez, irakasleen profesionaltasuna hobetu, gelan egiten duen jarduerari buruzko jarrera kritikoa indartuko duena.

Dagokien printzipio, balore eta nortasun -ezaugarriak:

Kalitatezko irakaskuntza. Irakasleen profesionaltasuna. Gizartearen zerbitzura.

Helburuaren formulazioa:

Metodologia arazoetan eta irizpideetan adostasuna bilatu, eta koordinazioa eta talde-lana indartu

Dagokien printzipio, balore eta nortasun -ezaugarriak:

Irakasleen profesionaltasuna. Kalitatezko irakaskuntza.

Helburuaren formulazioa:

Gure ikastetxearen eta beste ikastetxe, erakunde eta elkarteen arteko lankidetzak sustatzea, gure hezkuntza-jarduera aberasteko.

Dagokien printzipio, balore eta nortasun -ezaugarriak:

Ikastetxea bere ingurunean errotua. Euskalduna, eleanitza. Gizartearen zerbitzura.

Helburuaren formulazioa:

Ikastetxearen funtzionamendua ebaluatu eta etorkizuneko jokabideetarako emaitzak kontuan hartu.

Dagokien printzipio, balore eta nortasun -ezaugarriak:

Kalitatezkoa. Jarrera kritikoa. Ikastetxea bere ingurunean errotua, gizartearen zerbitzura.

3.1.3. HEZKUNTZA KOMUNITATEARI LOTURIKO HELBURUAK

Helburuaren formulazioa:

Hezkuntza komunitateko sektore guztien ordezkapena bermatu eta beraien arteko komunikazioa eta lankidetzaren indartu.

Dagokien printzipio, balore eta nortasun -ezaugarriak:

Parte-hartzailea.

Helburuaren formulazioa:

Baliabide ekonomikoak nahiz beste motatakoak modu orekatuan kudeatu.

Dagokien printzipio, balore eta nortasun -ezaugarriak:

Ikastetxe purala, inklusiboa, ekitatiboa. Gizartearen zerbitzura.

3.2. LEHENTASUNAK

Jasotako helburu guztiak kontuan hartuta, honako Hezkuntza Proiektuak gure ikasleei prestakuntza osoa eskaini nahi die, ezaguera, estrategia eta jasotako gaitasunen bidez, errealitatearen ikuskera eraiki dezaten, errealitate horren ezagutza eta balorazio etikoan oinarritutakoa. Horrela, gizarte anitzean, askatasunez, tolerantziaz eta elkartasunez, kritikoki jarduteko gaitasuna gara baitezakete; nor bere eta besteen eskubide eta betebeharrekin begirunetsu jokatu duten ikasleak eratu; bere jardueran, lan eta portaeran erantzukizunez jokatu dutenak eta bere ahaleginen bidez, gizartearen helburuak lortzen kolaboratzaile izango direnak.

4.1. CURRÍCULUMAREN ESPARRUA

4.1.1. METODOLOGIA AUKERAK

Aurrean aipatu ditugun helburuak lortu ahal izateko, ondoren zehazten ditugun metodologia printzipioak baliatuko ditugu:

- 3.2.1. Ikaskuntza adierazgarriak antolatuko ditugu, ikasleek aurretiko ezagueren eta esperientzien eta ikasketa berrien arteko erlazioak ezar ditzaten irakaskuntza-ikaskuntza jarduerak diseinatuz.
- 3.2.2. Hezkuntzako esku hartzeak ikasleen aniztasunari eman beharreko arreta hartuko du kontuan, aniztasun-mailei egokitzapenak ezarriko dizkienak.
- 3.2.3. Oinarrizko gaitasunak eskuratzeari eta matematikak erabiltzeari arreta berezia eskainiko zaio eta ahozko zein idatzizko adierazpen zuzena

sustatuko da. Irakurketarako ohitura bultzatzeko, irakasgai guztietan gaiari loturiko testuak irakurtzeari bere lekua emango zaio.

- 3.2.4. Esperimentazio eta behaketari gehien loturiko gaietan (kimika, fisika, natur eta gizarte zientziak, hezkuntza fisikoa) azterketa eta zehaztasun zientifikoa sustatuko dira.
- 3.2.5. Batxilergo eta Heziketa Zikloetako mailetan, ikerketa-metodo egokiak ezartzea sustatuko da, baita hemen ere irakurketarako ohitura eta jendaurrean zuzen hitz egitekoa ere.
- 3.2.6. Ikasketen funtzionaltasunak nagusitu behar du irakaskuntza prozesuan, ikasketa horiek ikasleek behar dituzten benetako egoeretan erabiltzeko aukera izan dezatela bermatuz, hau da, “ikasten ikastearekin” erlazionatuak.
- 3.2.7. Hezkuntza jardueran, elkarriketaren bidezko praktika gogoetatsua eta ideien elkartrukea nagusitu behar dira.
- 3.2.8. Ikasgelan giro atsegina sustatu behar da, konfiantzan eta elkarrenganako begirunean oinarritutakoa.

4.1.2. EBALUAZIOA

Ebaluazioa hezkuntza prozesua kontrolatzeko ezinbesteko elementua da eta hura eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzea du helburu. Esan genezake ebaluazioa hezkuntza berriztapenaren motorra dela.

Ebaluazioa curriculumeko osagaia den neurrian hezkuntza eredu pedagogikoko gainerako osagaietatik (oinarrizko konpetentziak, helburuak, edukiak eta metodologia) bereizteza izan behar du.

Ebaluazioaren helburuak:

- Hobekuntza: Ikaslearena (ikaskuntza pertsonalizatua), irakaslearena (hobekuntza ekintzak) eta ikastetxearena (Hobekuntza planen bidez).
- Koherentzia: Konpetentzietan oinarrituz ebaluazioak hezkuntza eredu pedagogikoarekin koherentea izan behar du. Ikasleek etapa bakoitzaren amaieran lortu beharreko “irteera profila” (hezkuntza helburuak eta bizitzaren esparru eta egoera guztietan moldatzeko ikasleek lortu behar duten oinarritako konpetentzien multzoa da) hartzen du erreferentzia.

Ebaluazioa motak:

- Ebaluazio diagnostikoa: Ikaskuntza-prozesuaren egoera ezagutzea du helburu. Hezkuntza prozesuaren edozein momentutan egin daiteke.

- Ebaluazio formatiboa: Ikaskuntza-prozesuaren garapenaren berri ematen du, erabakiak hartzeko eta irakasleek prozesua ikasleen beharretara egokitzeko. Ikaskuntza-prozesuaren edozein momentutan egin daiteke hau ere.
- Ebaluazio sumatiboa: Irakasleek ikaskuntza-prozesuaren amaieran ikasi dutena neurtzen du. Emaita bat (kalifikazioa) eskatzen du eta erabaki administratiboak (maila edo etapa gainditzea, promozionatzea edo titulua lortzea) eragiten du. Ikaskuntza-prozesuaren amaieran egiten da.

4.1.3. ANIZTASUNAREN TRATAERA

Honi dagokionez, DBH mailan ikastetxeak irakasle espezialistak ditu banakako edo talde txikietako harrera behar duten ikasleekin lan egiteko. Ikastetxeko Orientatzaileak, ikasle horien tutoreak eta Zikloko irakasleak egiten dute ikasle horien balorazioa eta hautaketa. Ezarriko zaien ebaluazioa etengabekoa izango da eta irakasle espezialistak, tutoreak eta ikastetxearen orientatzaileen artean burutuko da.

4.1.4. ORIENTABIDEA ETA TUTORETZA

Hezkuntza jarduerak guztien koordinazio iraunkorra lortu nahi du, non irakasleak, familiak eta ikasleak, banaka zein taldeka, kontuan hartzen diren, tutoretza ekintzaren bitartez helburu hauen ildotik: ikasleen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren, ikastetxearen dinamika barruan txertatzekoaren eta orientabide akademikoari eta lanekoei loturikoen jarraipena egitea.

Ikastetxearen Orientazio Sailak aholkatuko ditu tutoreak eta baita berezkozkat jotzen diren bileretarako deia luzatu ere, tutoretza ekintza planaren garapena probetxugarria suerta dadin.

Plan honen helburuak lortzearen, hiru bidetatik joko da:

“Bizikidetzan irakatsi”

- Ikaslea bere taldean eta ikastetxeko bizitzan integratzen lagundu, parte-hartzeko jarrerak sustatuz.
- Elkarbizitza arauak, kideak, irakasleak, etab., errespetatu.
- Lankidetzak, elkartasuna eta taldeko lana sustatu, azken honetan, arauak errespetatuz.
- Ikastetxearen eta gurasoen arteko harremanak erraztu, hori ikasleentzat ere positiboa izango delakoan.

“Pertsona izaten irakatsi”

- Irakasleak elkarbizitza demokratikoan eta partaidetzan hezi.
- Garapen etiko eta balioak eskuratzen lagundu.
- Ikasleengan jokabide kritiko eta arrazoitua garatu.
- Bere berberatasuna onartzen irakatsi, bere autoestimua garatzen lagundu.
- Banakako desberdintasunak onartzen, errespetatzen eta baloratzen irakatsi.
- Intolerantzia jarrera eta portaerak uxatzen ikasi.
- Erantzukizun pertsonaleko eta jarrera positibistak garatu.

“Pentsatzen irakatsi”

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua bultza dezaketen estrategiak lortzen lagundu.
- Ikasteko denbora antolatzen irakatsi.
- Etekin akademikoa lortzen lagundu dezaketen ikaste-teknikak erabiltzen irakatsi.
- Autoebaluazioa: norberak eginiko akatsen hausnarketa egin eta, zuzentzearen asmoz, horietatik ikasi.
- Bere lana ikuspuntu kritiko eta arrazoitu batez aztertzen irakatsi.

“Erabakitzen irakatsi”

- Eskola-maila ezberdinetan ikasleak har ditzaketen aukeren berri eman.
- Erabakiak hartzen lagundu. Ikaslea, haiek erantzukizunaren eta ezagutzaren ildoetatik bidera daitezten.
- Beren gaitasunen, kualitateen, interesen eta aukeren ezagutzan lagundu.
- Ikasleek har ditzaketen lanbide edo aukera akademikoez informatu eta orientatu, lan eremuan
- Integrazteko baliagarri suerta dakiekeen

4.1.5. IKASTETXEAREN PROIEKTUAK (b. IUP/PAC-ean aurtengoak)

Leizaran BHia zenbait proiektu eta programatan dago sartuta: Bizikidetza eta Hezkidetza, Kulturartekotasuna, Euskararen Normalizazio Proiektua, Erasmus +, Agenda 21, Berriazko sendotze hezkuntza proiektua (BSHP), BIDEFLAGUNA (eskolaz kanpoko orduetan ikasleak laguntzeko programa), Ingelerako elkarriketa laguntzaile bekaduna...

Beste proiektu batzuk:

Ikastetxeen arteko trukaketa: Leizarango Batxiler 1go. taldeko ikasleak Hamburgoko *Bugenhagen Schule* ikastetxearekin elkartrukea egiten dugu.

Pauso Berriak, adimen-ezgaitasuna duten pertsonen gizarteratzen laguntzen dien ATZEGI eta GUREAKen proiektua.

Ikastetxea LANBIDEn (Euskal Enplegu Zerbitzua) Prestakuntza-Entitate kolaboratzailea da 2013-2014 ikasturtetik, eta harrezkeroztik hainbat profesionaltasun-ziurtagiri eman ditu urtero, hala nola SSCG0209 *Mediación comunitaria* eta SSCG0109 *Inserción laboral de personas con discapacidad*, azken hau GUREAKen lankidetzarekin. Enplegurako prestakuntzari dagokionez, ikastetxeak HOBETUZen bidez parte hartzen du landunen prestakuntzan 2012-2013 ikasturtetik eta ikastaro hauek eman ditu, besteak beste: MF1039_3 *Gatazken prebentzioa*, MF 1026_3 *Gizon-emakumeen arteko aukera-berdintasunaren sustapena*.

Proiektu eta programa hauek guztiak irakaskuntza eta Proiektu Kurrikularra indartu eta hobetzea dute helburu, bakoitza ikuspegi ezberdinetik:

- Hezkuntza elkartearen bizikidetza sendotzea egunerokotasunean giro egokia sortzeko.
- Ikastetxean ematen diren kultura ezberdinekiko begirunea.

- Hizkuntz errefortzua, ikaslearen Harrera Planean ezarritakoaren arabera.
- Ikasleen prestakuntza.
- Ingurumenarekiko konpromisoa.
- Aniztasunaren trataera.
- Gizartearekiko konpromisoa, landunen eta langabeen prestakuntzaren bidez.

4.1.6. BERRIKUNTZA:

Aurten Eusko Jaurlaritzako diru laguntza bati esker bi proiektu gauzatuko dira: *Baratza jasangarria* 3. DBH E-n eta *Presiopeko airez bultzatutako kohetea* maila ezberdinetako ikasleekin aplikatuko dena.

Bestaldetik 2015-2016 ikasturtean STARTInnova (Ekintzailetasuna sustatzeko proiektua) proiektua ezarri da Gizarteratzea goi-mailako zikloan. Aipatu 2016ko Otsailaren 25ean diariovasco.com-ek antolaturiko STARTInnova ekimenaren 4. edizioan IES Leizarango ikasleek 2. eta 3. sariak eskuratu zituztela 18 urtetik gorako kategoriaren barruan, honoko proiektu hauekin:

- *Irrifarrak bilatuz* (Protesiak 3 D-n) bigarren saria eskuratu zuena.
- *Munduardean* (Tratu txarren prebentzioa ikastetxeetan) hirugarren saria eskuratu zuena.

4.2. ANTOLAMENDUAREN ESPARRUA

4.2.1. IKASTETXEAREN ANTOLAMENDUA

- **Zuzendaritza Taldea:** Antolamendu eta Jarduera Araudiak (AJA) konposaketa eta funtzionamenduari dagokiona ezartzen du. Hauek dira taldearen partaide: Zuzendaria, Zuzendariordea, Ikasketaburua, Idazkaria eta Pedagogia Koordinatzailea.
- Kide anitzeko organoak, AJAn ere zehaztutakoaren arabera, **Irakasleen Klaustroak eta Eskola Kontseiluak** osatzen dute. Aipatu araudian funtzioak, konposaketa, etab..., zehazten dira.
- **Irakasleak:** Ikastetxearen lan-taldea, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko (Humanistikoa eta Gizarte Zientzietakoa eta Zientzia eta Teknologikoa) eta Gizarteratze Zikloko gai bakoitzeko irakasle espezialistek osatzen dute. Halaber, Pedagogia Terapeutikako bi irakasle, Orientatzailea eta Liburuzaina ditugu.
- **Batzorde Pedagogikoa:** Mintegi buruek osatzen dute.
- Irakasle ez direnei dagokienez, bi **atezain** dauzkagu bat goizez eta bestea arratsaldez.

- Administrazio alorrean, lanetarako **administrari** bat daukagu.
- Ikasleen **Gurasoen Elkartea**.

4.2.2. IKASTETXEAREN ORDUTEGIA

Bigarren Hezkuntzaren mailan ikastetxearen ordutegia goizez, 08:05etik -13:10era eta, arratsaldez 14:40etik-16:30era da astelehen, astearte eta ostegunetan; eta 08:05etik-14:05era -goizez bakarrik- asteazken eta ostiraletan.

Batxilergo mailan, ikasleek etengabeko ordutegia izango dute: 08:05etik -15:00etara, astelehen eta ostegunetan, eta 08:05etik-14:05era astearte, asteazken eta ostiraletan. Aurtengo ikasturtean LOMCEn aplikazioaren eraginez 1go Batxilergoko ikasleek asteazkenean 15:00etan bukatzen dute.

Gizarteratzea Zikloan, goizeko ikasleek etengabeko ordutegia dute 08:05etik-14:05era astelehenetik ostiralera bitartean. Halaber, Gizarteratzea Zikloan, matrikula libreko ikasleak ditugu. Eskaintza Partzialeko ikasleek 17:30etik aurrera ematen dituzte klaseak.

Irakasleen urteko ordutegian, ikasleei zein gurasoei arreta emateko ordua zehaztuta dago.

4.2.3. IKASLEEN ANTOLAMENDUA

Ikasleen antolamendua eta banaketa hizkuntz ereduaren arabera egiten da. Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, berriz, hizkuntz ereduak A eta D dira. Heziketa Zikloan ere A eta D ereduak dira. Hizkuntz eskakizuna eta hezkuntza maila kontuan hartuta, ikasleak alfabetikoki zerrendatzen dira.

Banakako arreta berezia behar duten ikasleak, beharren arabera, zenbait ordutan Pedagogia Terapeutikako irakasleekin egoten dira. Halaber, tutoreekin eta orientatzailearekin harremana dute egokitzen eta ebaluazioak egiteko.

Beste zenbait ikasleek hizkuntz errefortzua jasotzen dute eta hauekin Hizkuntz Indartze Proiektuan ari den irakaslearen (HIPI) laguntza jasotzen dute. Ikasle hauek ere, bere ikastaldetik irteten dira beste ikaskideek hizkuntza orduan dauden bitartean.

Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programa. (HBSP):

Gizarte- edo kultura-egoera zailtan edo moldatzeko zailtasun handiak dituzten DBHko 2. mailako ikasleekin egiten da. Hori gerta daiteke, alde batetik, eskolan atzerapen handia dutelako, arlo instrumentaletan batez ere, eta atzerapen hori gizarte-egoera kaltetuetan egoteari loturik dagoelako. Bestetik, eskolara egokitze arazoak dituztelako. Bi irakasle arduratzen dira errefortzu honetaz eta matematika eta gaztelaniako orduetan bikoizketa egiten da.

Errefortzuko BIDELAGUNA (lehen PROA):

DBH 1go. eta 2. mailako ikasleei bideratuta. Arratsalde egiten da, klase-orduak bukatu ondoren, astelehen, astearte eta ostegunetan. Ikasleek 4 errefortzu-ordu dituzte. Irakasleek, berriz, beste ordubete bat dute Orientatzailearekin koordinatzeko.

Ikasle bezala dagozkien gaietan, ikastalde bakoitzak ikasleen ordezkaria du. Ordezkaritza guztiek Ordezkaritza-Batzordea osatzen dute. Honen funtzionamendua Ikastetxearen AJA arautzen du ere.

4.2.4. ANTOLAMENDU ETA JARDUERA ARAUDIA (AJA)

Honen xedea hezkuntza elkarteak osatzen duten partaide ezberdinen harremanak arautzea da. Bertan ikastetxearen organo ezberdinak, banakakoak zein kide anitzekoak, zehazten dira; baita hauen funtzioak eta osaera ere; bertan, ikastetxearen funtzionamenduari dagozkion oinarritzko alderdiak ere azaltzen dira, bizikidetzari buruzkoak, etab...

Azken puntu honi dagokionez, AJA Ikasleen Eskubideen eta Betebeharren Dekretua txertatzen du eta bertan ondoko aldeok ikus daitezke: ikastetxearen barruan edo atsedendaldiko esparruetan ikasleek bete behar dituzten portaera eta diziplina arauak; higiene arauak; pertsonen eta hezkuntza jardueran erabiltzen diren gaiekiko begirunea. Gainera, eta egindako hutsegitearen arabera, zigorrak ezartzen dira.

4.2.5. PARTE HARTZE ETA KOORDINAZIOA

Leizaran BHI esku hartze bideak bitarteko hauen bidez ematen dira:

OOGa edo Eskola Kontseilua: Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorena da non, ikastetxearen estamentu guztiak ordezkaturik dauden, baita Andoaingo Udalaren ordezkaria ere. Ikastetxearen AJAn konposaketa, funtzionamendua, batzordeak, etab zehazten dira.

Irakasleen Klaustroa: derrigorrezko esku hartze organoa. Dagokion funtzionamendua ere ikastetxearen AJAn ezarrita dago.

Koordinazio Batzorde Pedagogikoa: Ikastetxearen Zuzendaritza eta Mintegi Buruek osatzen dute. Hilero bilduko da eta sailetara eramango ditu bertan azaldutako aztergaiak. Halere, sailek egindako proposamenak jasoko ditu Batzordean aztertzeko.

Mintegi bilerak: astean behin egingo dira, irakasleen urteko ordutegian horretarako zehazten den egun eta orduan. Bilera hauetan curriculumari dagozkion gaiak aztertuko dira: programazioa, berorren jarraipena, irakasgaiaren urteko memoria; ikastaldeetan irakasgai garatzean sor daitezkeen arazoak ere aztergai izango dira. Azkenik, Batzorde Pedagogikotik ekarritako gaiak aztertuko dira ondoren, hauetaz erabakiak hartzeko.

Beste motatako Batzordeak: Batzorde Iraunkorra, zenbait dokumenturen (Ikasturteko memoria, Hezkuntza Proiektua...) elaborazio lanak eskatutakoak etab.

Proiektu zein programei atxikitutako lan-taldeak: Kulturartekotasun jardunaldiak antolatzeko, Hizkuntza Proiektua abian jartzeko Batzordea; Agenda 21ekoa; Bizikidetzeta-Behatokia, etab...

4.2.6. IKASTETXEAREN IRUDI KORPORATIBOA ETA KUDEAKETA TRESNA NAGUSIAK

Ikastetxeko logotipoa: Ikastetxearen irudi korporatiboa da kanpo komunikazio, ziurtagiri eta proiektuetan besteak beste erabiltzen dena.

Web orria: Orria www.leizaran.net da. Bertan, ikastetxearen informazio orokorra aurkitu daiteke, baita ikastetxean garatzen diren proiektuak eta hezkuntza eskaintza. Beste atal nagusia da gurasoek, irakasleek eta ikasleek duten sarbide mugatua: bertan “txatea” daiteke; ikasleek irakasleek bidalitako lanak jaso ditzakete, esteka bat “moodle” plataformetara iristeko non zenbait irakaslek ikasleekin jarduera osagarriak burutu ditzaketen.

Gizarteratze Heziketa zikloak ere badu bere web orri partikularra; www.integra.eus, eta bertara www.leizaran.net-etik hel daiteke.

Posta elektronikoa: Aurreko ikasturteetan irakasleei eginiko komunikazio-gai nagusienak, (klastroa, batzorde pedagogikoa, bilera bereziak) paper formatuan egin beharrean, posta elektronikoaren bidez egitea erabaki genuen eta horrela egiten da.

Intranet: Irakasle bakoitzak, bere pasahitzaz baliatuta, intranet-en bidez, ikastetxearen informazio ugari eskura dezake: eskolaz kanpoko jarduerak, gela berezien erabilerarako egutegia, ikasleen hutsegiteak, funtzionamendurako txantilo nagusienak, ordutegiak, legedia, proiektuak, departamentuetako programazioak, etab.

4.2.5. GURE INGURUEKIKO HARREMANAK

- Andoaingo Udalarekin

Euskara Batzordearekin: Andoaingo Udalaren Euskara Zerbitzuarekin harremana dugu, herriko beste ikastetxeekin batera (Ondarreta I.P., Ikastola, La Salle-Berrozpe Ikastetxea) euskararekin zerikusia duten zenbait jardueratan. Horien artean zenbait ikastaro: Erreportaje ikastaroa, Udalak antolatzen duen “Erreportari Gaztea” lehiaketan ikasleak esku hartzea sustatzeko xedez, Batxilergoko ikasleei bideratutako “Motibazio saioak”, ikasleen euskara erabilpena sustatzeko, euskararen astea, pertsonaia ezagunen presentzia gelan, ikasleek elkarriketatu ditzaten, Ongi-etorri proiektua, ikasle etorri-berrientzat, antzerkia, etab....

Ongizate Batzordearekin: Gizarte-laguntzaileekin eta kale-hezitzaileekin zenbait ikasleren eta bere gizarte eta familia ingurunearen jarraipena egiteko. Beste zenbait ekintzatarako ere: Belaunaldien arteko elkartrukea, berdintasunaren inguruko zenbait ekintza (azaroak 25, martxoak 8).

Ingurumenaren Sailarekin: Urtero tokiko Agenda 21ak zehazten dituen proiektuak aurrera eramateko. Honetan ere, herriko beste ikastetxeekin batera.

Hezkuntza eta Kultura Batzordearekin: Andoaindarrak 400, Gabonetako kartelak, Bastero.

Ekonomia eta Ogasun Saila: Udaleko garapen-agentzia sortu berriarekin ere badugu harremana.

- **Andoingo anbulatorioarekin:**

Txertoen kanpainarako, emaginaren hitzaldirako.

- **Lasarteko Berritzegunearekin:**

Berritzeguneak antolatzen dituen zenbait mintegietara joanez, hala nola Orientzaile edota Zuzendaritzara zuzendutakoak, Hezkidetzak bilerak, Hizkuntza Normalkuntza etab.

- **EITB:**

EITBk gonbidaturiko hainbat programatan parte hartzen dugu: *Gu ta gutarrak*, *Buru bero*.

- **EHU/UPV:**

Jaiunde taldeak 4. DBHko ikasleentzat urtero antolatzen dituen saioetara joanez.

Ate irekietara (Batxilergoko ikasleak) joanez.

- **Gizakia Helburu, ASPACE, ONCE, CARITAS, GAUTENA, Fundación Goyeneche...**

Gizarteratzea zikloaren barruan hitzaldiak, bisitak eta zenbait kasutan ikasleen praktikak.

- **AGISAS:**

Gizarteratzaileen eta Animatezaile Soziokulturalen elkarteak da, IES Leizarango ikasle ohien sustapenarekin sortua. Gizarteratzea zikloko ikasleei aholkularitza eta laguntza eskaintzen die.

5. HEZKUNTZA PROIEKTUAREN IRAUNALDIA

Ikasturtea	Hezkuntza proiektuaren iraupena mantentzeko egindako ekintzak	Hezkuntza proiektuaren berrikuspenak eta egindako aldaketak